

# Itzulpenera hurbiltzea Zenbait errezeta (III)

Peter P. Newmark irakaslearen ekarriaren inguruan

KARLOS DEL OLMO

Irakurleen esku jakitunetara zuzendurik, hona hemen P. Newmark irakasleak *The linguist* aldizkarian argitaraturiko artikulubildumaren beste laburpentxo bat. Berriki liburu gisa argitaratu ditu 1989ko maiatzetik 1992ko abuztura arteko artikuluko Multilingual Matters Ltd enpresak, *Paragraphs on Translation* izenburupean.

Egileak berak liburuari eginiko sarrera erabiltzea litzateke onena artikulubildumaren nondik-norakoa aditzeko. Langaiak honako hauek dira:

- 1.- Hizkera erotikoren itzulpena, oso *sui generis* izaten baita.
- 2.- Itzulpenezko hainbat topiko: aipuak, atze-itzulpena, errepikapenak, giltzahitzak, ikurrak e.a.
- 3.- Itzulpen-teoria, batez ere irakasleak bereizten dituen bi joera nagusiei buruzkoa, alegia, itzulpen semantikoa eta komunikatiboa.
- 4.- Itzulpena, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza eta hizkuntzalaritza.

5.- Itzulpengintza herritarrentzako topiko ernagarri gisa, hau da, herri baten bizitza publikoan itzulpenak zer nolako garrantzia duen azpimarratzea.

6.- Aldizkari, liburu, hitzaldi eta abarren berri eman eta kritikatzeko.

Honela dio: «Liburuak hiru azpitemu ditu:

(a) Politikoa. Gizakien, animalien eta ingurunearen eskubide jakin batzuen alde nago, horietako batzuk gehienok eta leku gehienetan onartuak, beste batzuk ez hain onartuak. Eskubide horiek guztiak hizkuntzaren aurreko jarreran eta itzulpen-metodoaren tratamenduan islatzen dira. Jakintzagai eta aritze gisa itzulpengintza garrantzitsuegia da neutrala edo ez-politiko izateko moralaren aldetik. Nolanahi ere den, hainbat testu dago non eskubide unibertsalek oso zeregin apala edo ezdeusa duten (hizkera sexistaren aurrean) eta kontraesanguratsua da etengabe horietaz aritzea.

(b) Artistikoa. Makina bat musika-lan, poema, antzezlan, fikzio eta pintura dut maite eta, nahiz eta trinkoki izan, maitasun hori izan dezakedan irakurle orori helarazi nahi diot. Batzuetan jatorrizko lanen eta itzulpenaren arteko lotura oso hautemangaitza eta artifiziala dela onartzen dut. (...) Beti hel diezaioket Roman Jakobson eta George Steiner-ek plazaratu eta edozein adimen-ihardunbide itzulpena dela dioen tesiari, nik neuk tesi hori izenpetzen ez dudan arren.

(c) Linguistikoa. Hizkuntzak jota eta lilitaturik nauka, eta ulertu eta balioets dadin ekarpen xume bat egiten saiatzen ari naiz.»

Newmark irakaslearen beraren adierazpenek ezin hobeto ematen digute bere teoriaren berri, itzulpen-teoriaren eremu klasikoa gainditurik, beste hainbat esparrutara hedatzen baitira. Askotan, eguneroko jardunaren zuhaitzak ez omen dio itzulzaileari itzulpengintzaren baso zabala ondo ikusten uzten. Jakina, kontrakoa ere gerta daiteke, testuinguruaren basoan galduta ibilita, eguneroko ariaren zuhaitzean agertzen diren koxkei erantzuten ez jakitea.

Hala bere, hasi bagarik ezer egiten ez dela sinistuta, honenbestegaz, hona hemen hurrengo sorta.

### Sarrera

Itzulpengintza ihardunbide dinamikoa da, mugaturik badago ere. Itzulpen bat inoiz ez da guztiz bukatua (itzulzaileak, normalean, irakurtzen duen bakoitzean, aldaketaren bat edo beste gaineratzen dio), ezta perfektua ere. Agente dinamiko nagusia itzulzailea bera da, noiz edo noiz buruan bere lanarekin borrokan segitzen duelarik are hura entregatu ondoren ere. Bigarren agente di-

namiko nagusia xede-hizkuntza bera da; aldakorra denez gero, hogeita hamar urtero, gutxi gora behera, lan iraunkorrek berriro itzultzera behartzen baitu. Jatorrizko hizkuntza bera ere aldaketa-agentea ere izan daiteke ahotik harako osagai semantikoak izanez gero.

Itzulpen Teoriaren mintzagai nagusia hitzez hitz itzuli ez denean edo ezin izan denean itzulzaileak hartutako bidea edo erabakia izaten da. Normalcan, horrelako egoeretan jokabide asko dago hautakizun eta erabakizun. Horren kontura esan beharra dago itzulpen-teoriaren ekoizpena gero eta ugariagoa dela eta, antza denez, ez du gelditzeko itxurarik. Itzulpen-teoria orokorra hizkuntzalaritzan oinarritzen da batez ere, literaturazko itzulpen-teoria literatura-teorian bermatzen den neurrian. Itzulpena eremu berrietara zabaldu ahala, teorilariak itzulpen-teoria berriak plazaratzera beharturik daudela dirudi.

Jakina, ez da atzendu behar Schleiermacher-ek emandako oinarritzko dikotomia «irakurlea idazlearengana hurbiltzea» edo «idazlea irakurlearengana hurbiltzea», eta horri eutsi beharra dago; aldatzea dagoen arren, egoeran egoerako funtzioaren arabera.

Itzulpengintza, nolahi ere den, ez da alde biko ihardunbidea, kontuan izan behar dituelako bost faktore eragile: etikoa, errealismoarena, logikarena, lengoaiaren purutasunarena eta estetikoak; estetikoak izan ezik, beste laurak unibertsalak direla.

Etorkizuneko itzulpen-teoria, antza, areago izango da aplikatua purua baino, arloz arlokoa orokorra baino, eta langaitzat honako eredu hauek izan ditzake: a) hizkuntzalaritza konparatua, b) terminologia, c) itzulpen-kritika, une horretara arteko itzulpenak be-

rrikustea barne, d) corpus-ean oinarrituriko ikerketa linguistikoak, e) kultur konparaziozko azterlanak, f) itzulpengintzaren soziologia, g) itzulpen-ihardunbidea, h) xede bereziatarako hizkera berezituaren erkaketak, i) dialektoak, hitz-jokoak, ironia, antzerki-generoak, testu legalak, administratiboak, zientifikoak, parodia, humorea itzultzeko hastapen eta metodoak, j) itzulpengintzaren berrikusketa historikoak, baita idazle garrantzitsuen eraginenena, bereziki Ibsen, Txejob, Strindberg, Brecht eta bestelako nobelagileenena, k) itzulpengintzako zeregin xumeak: puntuazioa, izenburuak, tipografia, espazioak, letra larriak.

### **Itzulpena eta hizkuntza aberastea**

Itzulpenak edozein hizkuntz ikaskuntzaren hiru ezaugarri garrantzitsu garatzen ditu: zehaztasuna, argitasuna eta malgutasuna. «Esan nahi dena ahalik eta modurik argienean (argitasuna) adierazteko hitzik egokienean (zehaztasuna) bilatzen (malgutasuna) trebatzen du itzulpenak». Eta hori, hizkuntza ikasketaren goi-mailetan, ezin eztabaidatuzkoa da.

### **Sinonimia**

Ingelesak beste edozein hizkuntzak baino hiru bider hitz gehiago omen ditu, eta hiztegi ingelesek jasotako hitzen kopurua beste hizkuntzetakoekin alderatuz gero, ondorio hori nekez eztabaida liteke. Hala ere, jakina denez, beste hizkuntzek adiera bat baino gehiago duten hitz ugariak izan ditzakete. Ondorioz, ezinbestekoa izango du itzultzaileak sinonimia itzulpen-teknika gisa ondo menperatzea, batez ere, itzulpenaren

azken ukituak egitean, atontzerakoan. Entziklopedia eta hiztegien ondoren, xede-hizkuntzako sinonimoen hiztegi on bat [bi mota: a) sarrera baten menpeko zerrendak eta b) sinonimoen esanguren definizio eta kontraktotasunak] itzultzailearen bitartekorik garrantzitsuenetarikoa bilakatzen da.

Sinonimia deritzon itzulpen-teknikaren hautabide nagusia analisi konponentziala da, hau da, banan-biko, -hiruko edo -lauko itzulpena. Zehatzagoa da, baina ez hain ekonomikoa, eta, sinonimia ez bezala, ezin da hedapenez erabili testu osorako. Normalean, halako garrantzi berezia duten unitate lexikotarako besterik ez da erabiltzen.

### **Soinua eta zentzua**

Saussure-ren «Hizkuntz zeinua hautazkoa da» baieztapena honela berridatz daiteke: «Hizkuntz zeinuak batez ere hautazko bihurtu dira». Berbaldi guztien azpitik soinu-sorta bat dago. Soinu horiek bere-berezko sentipenak adierazten dituzte, batez ere atsegina eta mina, animalien oihuak (txorien kantak barne) eta euriak, haizeak, ekaitzak, urak eta suak ingurunean duten eragina. Soinuok nonahikoak dira, baina kulturek aldatuak hone-lako edo halako gizartean. Saussurek hautazkotasuna nahimen ezarekin identifikatu zuen, baina giza portaera, eskuarki, zergatiren baten menpean egon ohi da. «Arreba» adierazleak hautazkoa dirudi, baina ez dago jakiterik ea bere arketipo etimologikoa motibatua den ala ez.

Historiaurrean, gizakiok ingurunea antropomorfitatu zuten, osagai eta gauza guztiak ar edo emetzat hartuta. Horiek adierazten dituzten hitzek zelangura haien soinuak islatu nahi zituzten. Gizakiak gauzak identifika-

tzeari eta izendatzeari oratu zienean, orduan-txe hasi zen gauzak soinuetaatik bereizten. Kualitatezko adjektiboek (gehienak gizakia-ri dagozkio, baina animalia eta gauzei ere crants dakieke) eta horien adberbio eta ize- nek (emea, argia, e.a.) lotura zuzena dute soinuekin. Stanislaw Voronin ikerlari lenin-gradotarrak «fonosemantika» esaten dio soinuaren eta zentzuaren elkarteari, eta itzulpe- narekin lotura zuzena duela aldarrikatzen du. Soinuak esangura du, baina ez soilik poesian edo erretorikan, sentipenen adierazpide guz- tietan baizik. Onomatopeiak, aliterazioa, neurria, soinuen sinbolismoa e.a. ikertu dira, baina ez dago ikerlan esanguratsurik fonose- mantikan.

Marouzeau-k erakutsi bezala, giza soinu edo fonema guztiak, muntadunak direnean testuinguruan, esangura dute, normalean sentipenezko esangura eta, maiz, esangura anitzak; baina, musikan legez, esangurak ez- tabaida daitezke eta txarto ulertu ere. Nola- nahi ere den, hainbat soinuaren inguruan mendebaldeko kulturak akordioak erraz lor- tzen dira: gehinentzat, «k» indarrez bete- ta eta gogorra da, «m» emeagoa den bitartean. Eus- karaz, gogoratu besterik ez dago palataliza- zioak zer nolako zeregin garrantzitsua duen.

### **Itzulpenaren xedea**

Itzulpenaren xedea, lehenik eta behin; eta askotan, azkenik ere; sorburu-hizkuntzako testua da. Itzultzaileak zer nolako lanketa egingo dion erabaki beharko du, baina tes- tua beti egongo da hor. Ahozko itzulpenean (interpretatzean) baino ez da desagertzen. Ba- liabide eta eragingarri agortezina da itzul- tzailearen sena erne egon dadin. Itzulpen as- kotan, jatorrizkoa eta itzulpena artoski

konparatu ondoren, eta itzulpena bera aztertu ostean ere (ondo irakurtzen da?), azken az- terketa; baina ez munta gutxiagokoa; jato- rrizko mezuan izandako galerak aztertzea li- tzateke.

Itzultzean zein bidetatik jo erabakitze- ko orduan, lana agindu duenaren, bezeroaren edo nagusiaren garrantzia azpimarratzen da testu teoriko batzuetan. Zeregin hori eraba- kiorra izan daiteke edo ez, baina normalean, harreman estuagoa izaten du alderdi oroko- rrekin itzulpen jakin baten xehetasunekin baino.

### **Itzultzailearen erantzukizuna**

Itzultzaileak itzulpenaren zinetakotasun moral eta materialaren erantzukizuna du, baina ez dogma moduan; dogma, adiera ho- rretan, beti izaten baita okerrerako. Erru materialak testu barnean edo kanpoan zu- zendu behar dira, horien munta gora-behe- ra. Erru moralak ere zuzendu behar dira, ale- gia, animalia, gizaki edo ekologiaren eskubi- deetatik aldentzen direnak, are aipamen sexist- tak ere, testu barnean zein atean, irakurlea horietaz konturatuko dena jakin ezean. *Mein Kampf*-en itzulpen «herrikoi» batek jatorriz- koa baino bi bider luzeagoa izan behar luke bederen.

### **Literatura-itzulpena eta literaturaren mamia**

Fritz Senn-en iritziz «parafraseatu ezin daitekeen horixe da literatura. (...) «Mezua» ezin bereiz daiteke bere estilotik. Soinu- a, hitzen ordena, errepikak, gramatika-egiturak... horiek denek osatzen dute esangura».

Aurrekoa oso adierazpen gordina da. Esal- dia ezin daiteke literatura guztiarekin berdin

erabil. Lehenik eta behin, poesiari ezar lekioke, segituan poesia epikoari, jarraian istorio laburrei, ostean noblei eta azkenik antzezlanari (tragedia, komedia, fartsa, beheranzko hurrenkeran). Eta, batez beste, zeinahi idazki on eta seriori.

Senn-ek, bestalde, itzulpena batez ere parafrasia dela baieztatu du, are kultura (hizkuntza?) beraren barruan ere. Itzulpena parafrasia izan daitekeela onartu arren (eta ez da hainbestetan parafrasia), hori beti izango da hizkuntza beraren barruan eginiko edozein parafraisi baino zehatzagoa. Normalean «table» beti emango da «mahai, mesa, une table, una tavola, ein lisch» eta ez «hanka batez edo gehiagoz eta horiek gainean duten taula edo pieza lau batez osaturiko altzaria, jateko, idazteko, lan egiteko etab. etarako erabiltzen dena (Euskal Hiztegi Modernoa, Elhuyar)». Konturatu beharra dago, bestalde, itzulpena, laburragoa izanik, eragin handiagoa duela parafraisi elebakarrak baino.

Senn-ek, bestalde, translatoiaren zereginia itzulpena bera itzultzea litzatekeela dio. Hori *boutade*-tzat jo behar da, agian pentsalariari gauza bat ahaztu zaio, alegia, itzul-tzaileak ezin duela hori gauzatu beste itzulpen bat eginda ez bada.

### **Posible al da itzulpena?**

Itzulpen zehatz-zehatza normalean ezinezkoa da. Besterik ez bada, hizkuntza guztiek gramatika desberdinak eta hitz-kantitate desberdinak izateaz gain, eta, kultura desberdinak ere islatzen dituztelako. Agian «Bat gehi bat berdin bi» bezalako adierazpide matematikoak edozein hizkuntzataraz itzul daitezke zehatz eta mehatz. Mezuak sentipenezko tonuan edo hitzen soinuan enfasirik

jarri gabe ematen dituzten testuak beti itzul daitezke gogobetetzeko moduan, nahiz eta xede hizkuntzan esamolde edo kultur aldetiko desberdintasunak dauden. Itzultzean dagoen zinetako eragozpena ez litzateke kulturazkoa, hizkera pertsonala baizik, batez ere sorburuko hizkuntzako egilearen gogoeta baliotsu eta bere-berea adierazten duenean.

Gogoeta guztiak gora-behera, jatorrizko mezua beti izango da itzulpena baino arinagoa, eta itzulpena beti izango da lehenengoaren azalpen edo interpretazio modu bat. Egile batzuek postmodernismotik itzulpen-metateoria berri bat asmatu nahi dute, atzo arratsaldeko zenbait termino sartuaz. Agian, horiek defendatu bezala, itzulpena hizkuntz jolas hutsa da —benetan hori delako—; baina hortik bizitza, errealitatea edo egia baino, jolasa dela ondorioztatzea arriskutsua da oso.

### **Greko latinismoak**

Begi bistakoa denez, greko latinismoek isuri handiagoa dute esangura ugariak hartzeko erromantzeetan bestelako ezein hizkuntzatan baino, hizkuntza erromanikoetan aldi luzeagoz bizi izan direlako. Baina bizitza hori ez da berdina izan, horrela, «honorable» hitzak frantsesez eremu semantiko handiagoa du ingelesez edo gazteleraz baino: *La progression est honorable = This improvement is creditable = El avance es notable*.

### **Elebitasunaren segada**

Herri elebidunetako pertsona zein toki izenak arretaz aztertu beharrekoak dira. Horrela, idazle frantses batek «La Dentellière de Van der Meer» idatziko duen bitartean, ingeles batek «Vermeer's Lacemaker». Pieter de

Hooch (F), Hoogh edo Hooghe (Du) izan daiteke. Horrelakoetan, inoiz baino beharrezkoagoa da entziklopedia eta abarrak erabiltzea, tokian tokiko ekanduen arabera emateko. Euskal Herrian ere, ez dira atzo arratsaldekoak errotulu eta herri-izenen inguruko katramilak. Behin, Luis Michelena-ren lanek erakarrirako batek harako Koldo Mitxelena zorioneko hura nor ote zen galdetzen zuen, ea hura irakurtzea merezi zuen.

### **Metaforen itzulpena**

Kultura aldetik elkarrengandik hurbil dauden hizkuntzetan, eta literarioak ez diren lanen itzulpenetan, mende berekoak izanik, maiz metaforak irudi berberaz itzultzen dira, ia %60 izateraino. Metaforek, are klixe bilakatuek ere, ekintza, prozesu, gauza, nolakotasun benetako zein asmatuak islatu nahi dituzte, eta hizkera literalaz egin daitekeen baino modu ulergarriago, laburrago, deigarriago eta, zer esanik ez, apainduago edo jorriago batez.

### **Aldarteak faktore gisa**

Testu legal eta administraziokoak izan ezik, abia-abiatic bukaerarainoko itzulpen zehatz eta doia behar baitute; gainontzeko itzulpen guztiek itzultzailearen aldartea edo nortasuna salatzen dute, hura irakurlearekiko eta bere buruarekiko zorrotzasunetik esku zabaltasunik handienera joan daitekeelarik. Beraz, non uzten ditu gertaera horrek «itzulpen-zientzia» edo «translatologia» direlako horiek, «*faire ses preuves*» esaldia aukeran «bere burua frogatu» edo «bere trebetasuna erakutsi» esaldiez, aldarreak zer agintzen duen, eman badaiteke?

### **Ohiko gizarte erabilkera**

Itzultzaileak oso kontuan izan behar ditu hizkuntzaren ohiko erabilkerak, jasotzailearengan harridurarik edo arrotzasunik sor ez dadin. Lan horretan, laguntza handia ematen dute gramatika nozio-funtzionalaren arabera tajaturiko hiztegiek edo liburuek (esaldi, esamolde, klixeak), funtzio komunikatibo bat betetzeko hainbat esapide eskaintzen dituztelarik, itzultzaileak eskuarki erabiltzen ez dituztenak barne. Zenbait hiztegi horren berri ematen dute, azpimarragarriena, ingeles-frantsesean Robert-Collins izanik. Euskaraz AEKren eskutik zenbait lan argitaratu da horren inguruan (Nozioak, Funtzioak); hiztegi gisa, euskaratik gaztelararako, nozio moduko batzuen arabera antolaturik dago eta, Mokoroaren «Ortik eta Hemendik» erabil daiteke, nahiko usantza gaitza duen arren, ikuspegi antropologiko baten arabera antolatu denez gero.

### **Usuko teknika bat**

Hizkuntza batzuetatik besteetara itzultzean, «-able, -ible» eta mota horretako adberbioetan, oso normala da XHn horrelakorik ez egotea. Hala gertatuz gero, teknika gisa erlatiboaren bidezko parafrastra jotzea erabil daiteke, oso emaitza onak lortzen baitira. Ad.: «*un barème fiscal tolérable*» «zerga-baremo jasagarria» eman daiteke, zuzenean, baina ingelesez erabiliko litzatekeen bidera jota, «jaseteko moduko/jasan daitekeen zerga-baremoa» ere eman genezake.

### **Topagaitzak**

Baliabide ohiko eta lagungarri guztiak (informatzaileak, erreferentzi liburuak, konno-

tazioak, zentzu figuratiboa bilatzea, inprimaregiko hutsak, etimologiak, ahozkatze-hutsak, idiolektoak, neologismoak, bitxikeriak. e.a.) erabilita ere, itzultzaileak jatorrizko testuko pasarte, esaldi edo hitzen bat ulertzen ez duenean, oin aurrean zenbait jokabide ditu: a) testuinguruaren arabera, bere iritziz egokien den baliabidez betetzea hutsunea, b) horren berri ematea: «Topagaitza», c) aukeran hobea, a) aukeran bezala itzuli eta orripeko ohar batean SHko pasartea eta horren hitzez hitzeko itzulpena emanda, zergatik aukeratu den ebazpen hori laburki azaltzea.

### **Slang-a eta esamoldeak**

Ihardunbide gisa, itzultzaileak egungo hizkera erabiltzen du erregistro egokian, dena dela jatorrizkoa idatzi zeneko aroa. Zelangura ere, slang-a eta zenbait esamolde, orokorrean, estu-estu loturik eginda daude orainaldiarekin, kultura aldetik baino, linguistika aldetik; halako moldez, non oso bitxiak gertatzen baitira beste garai bateko testuetan erabiltzean. Egia da azken esan hau ez datorrena bat itzulpena egungo hizkeraz egin behar delako printzipioaz, segur aski slangak eta esamolde modernoek —beren tabuak eta guzti— gaur egungo izakerei baino oratzen ez dietelako.

### **Hizkuntza sintetiko eta analitikoak**

Hizkuntza batzuk batez ere sintetikoak diren bitartean, beste batzuek, aldiz, analisirako joera izaten dute. Ingelesa, erdi aroan, adibidez, oinarrian hizkuntza monosilabikoa zen, eta beste hizkuntza batzuk ez bezala, hitzak sortzerakoan, hitz konposatuak eta

gidoi bidez elkartuak saihesten saiatzen da. Begi bistako ondorio gisa, hiru silabadun hitz atzerritarrak hiru hitz labur ingelesez ordezkatzera joko du. Bestalde, errusierak hitz silabanitzak erabili ohi ditu ingelesez, jatorriz, silababakarrak direnak emateko. Euskaltzaindiak eskainitako Batasunaren Hiztegia delakoan, silaba bakarreko, biko eta hirukoak agertzen dira batez ere. Jakina, euskararen kasuan atzizkibideak hitzak bost eta sei silabataraino ere luza ditzake eta hitz-elkarketak berezibiziko indarra du. Areago barrendu behar den arren, euskal hitz zahar asko silaba bikoa da, antza.

### **Baliokidetzaren itzulpengintzan**

Itzulpenari buruzko teoria guztietan «baliokidetzaren» edo horren pareko terminoren bat agertuko da segur aski: «egokitasuna, baliokidetzaren, korrespondentzia, hurbiltasuna, berdintasuna, elkartrukagarritasuna, e.a.». Nonbait, aspaldian sortu eta egun ere gori-gorian dirauen eztabaida. Baliokidetzaren definigaitza da. Normalean, baliokidetzaren mailak izango dira itzulpenetan. Testuinguru jakin batean, baliokidetzaren aliterazio huts batean oinarri daiteke. Nolanahi ere den, itzulpenaren baliokidetzaren eta korrespondentziaren oso begi aurrean izan beharrekoak dira. Lehenengoak semantikari begiratzen diola, bestea sorburu eta xede-testuetako kokapenak ditu ikusmiran. Egokitasuna terminoa ez da oso erabilgarria, oso gauza desberdinak adierazten baititu hizkuntzatik hizkuntzara.

### **Bi mutur**

Erljio-testu bateko hitzak Jainkoaren esanari zor zaion begiruncagatik hitzez hitz bai-

no itzuli behar ez direlako nozioa beste bat dauka kontrakarrean, SHko hitzak XHn antzeko itxura duten hitzez itzuli behar ez direlako, alegia; honen jatorria hizkuntz irakasleak izanik. Nozio biak erratuak dira, baina azkena, oso errotua dagoelarik Frantzia eta Ingalaterrako irakaskuntza-sistemetan, baina azkenak itzulpenaren kontzeptua desitxuratzen du eta kaltegarria da. Horrela, zergatik ez eman «*une bonne année agricole*» «*a good year in agriculture*» esaldiaz eta ez «*a bumper year in agriculture*»? Honakoan «*good*» zehatz-zehatza litzateke. Zergatik itzulpen hurbilaren beldur hori? Imitazioaren beldurra al da?

Euskaraz «*gestión*» eta «*gestionar*», latinetik datozen hitzak, ez erabiltzearen, maileguak bailirateke, «*kudeatu*» eta bere sailekoak aukeratu dira, hitz euskaldunak direlakoan. Zorigaitzez, «*kudeatu*» hori Iparraldean zertarako erabili izan den ikusita, gestiogintzan dabilen baten bat minduta senti liteke «*jokoa zuzentzen duena*» dela esango balitzaio, gestioa jokotzat hartzen dela ikusirik, baina hori da bere jatorrizko adiera. Eta, gainera, biarnesari harturiko mailegua da «*coudeya*». Eta zer esan hegoaldean ikaragarri zabaldu den «*greba*» horretaz, frantsetik harturiko mailegua, «*huelga*»-ri, Arestik erabiltzen zuen berba, erdal usaina omen dariolako. Iparraldekoek agian «*huelga*» nahiago izango dute «*greba*»-ren partez. Kaierrean idatzitako oharra ez atzendu, alegia, koaderno hitza gehiago ez erabiltzea!

### **Zehatzetik abstraktora**

SHko izen zehatzak normalean goragoko mailaren batera eraman behar izaten dira itzulpenean, bai literalki bai irudi gisa erabilirik, XHn tarte lexikoak erakusten dituzte-

nean. Ekonomiazko testu batean «*des resorts et des freins sont en œuvre, qu'on peut déceler en une si courte période*» irakurrita, «*malgukiek eta balaztek badihardute, epe labur batean nekez hauteman daitezkeela*» ematea agian ez litzateke oso egokia, euskaraz hitz horiek tarte hori normalean betetzen ez dutenez gero. Agian «*(faktore) aringarriek eta motelgarriek badihardute...*»

### **Itzultzailearen bi ikusmirak**

Itzultzaileak bi ikusmira izan behar ditu testuak aztertzeke garaian: erreferentziala eta linguistikoa.

Lehenik, hitzek zeri egiten dioten erreferentzia ulertu behar du; zer jazo zen, zer jazozen ari da eta zer gerta daiteke, baita zeintzuk diren tartean diren agente edo tresnak ere. Hori erdiesteko, askotan senez jokatu eta tarte linguistikoa betetzen saiatu beharra dago. Berba guztiek; are funtzio-berbek ere, «*hauek*», «*-n zehar*» kasu; halako errealitate estralinguistikoa motaren bat islatzen dute eta itzultzaileak hori irudikatu beharra dauka, fikzio edo fantasia hutsa izanda ere. Bigarrenik, itzulpenak, ordainak, xedeko hizkuntz egituretan ikusi behar ditu itzultzaileak, bere buruari honela galdetzeko: «*Benetan onar ditzakezu berba horiek orrialdean?*». Aipaturikoa munta handikoa da ohiko hainbat egitura —askotan, gainera, maiz agertzen direnetakoak— esku artean izaten direnean.

### **Izenburua eta soinu-efektuak**

Itzultzaileak maizegi onartzen du ezinezkoa dela izenburu onaren soinu-efektua xedekoan ematea edo hura konpentsatzea, baina horrelako izenburuen aitzinean, xedeko arauk onartu bitartean, ahalik eta fide-



len jokatu behar da, asonantzia eta antzeko baliabideak ematearren. «*Secousse Sans Panique* = *Shock Without Panic*».

### **Itzultzailea ikustezina izatea**

Oinarri-oinarrrian, itzultzaileak ikusgaitza izan behar luke, eta itzulpenak itzulpen-usainik izan beharrean, sorturiko testuarena behar luke. Baina, benetan, gauzak ez dira horrelako errazak. Lehenik, itzulpena, agian, itzulpen gisa argitaratu beharko da, itzultzailearen izena agerian daramala, jatorrizko testuaren gaineko argibideak lagun. Bigarrenik, jatorrizko testuko osagai batzuk (esamoldeak, egitura bereziak, hitzen erabilkera bitxiak...) itzulpen imitaziozkoaz bagarik, itzulpen sortzaileaz eman beharko dira. Hirugarrenik, idiolektoak eta jatorrizko kulturaren osagaiak eman beharrak itzultzailea «salatzen» du. Laugarrenik, itzultzaileak berak batzuetan bere burua agerian jarri behar izaten du *sic* baliabidea edo antzekoak erabiltzean. Bosgarrenik, itzultzailea beti izango da ikustezina gizarte erabilkera arruntari eutsi bitartean.

### **Itzultzailea neutrala ez izatea**

Artea eta kirolaren antzera, itzulpena politikoa da berez, edo halakoa izan daiteke; baldin eta politika halako moraltasun nazional, internazional edo publikotzat hartzen bada. Itzultzailea ezin da neutrala izan errealitatearen edo moralitatearen gaineko gaietan. Parte hartu behar du, testu barnean zein atean.

### **Informaziozko testuak**

Itzultzaileak haizu du informaziozko testuak berridaztea, bertsioa jatorrizkoa baino

hobea izango dela segurutik jakinez gero. Gainera, bere estiloa ere inposa dezake horrelakoetan.

### **Itzulpengintzaren etsipena eta kontsolamendua**

Batzuetan, itzultzerakoan, itzultzailea bere inkontzienteari, bere oroimenari hitz hobeak atera nahian egoten da, esaldi baten hasiera behin eta berriro errepikatzen, aurrera jo ezinik, zerbait fresku noiz agertu zain. Batzuetan hala gertatzen da: hura lasaitua. Baina askotan ez da halakorik jazotzen, eta itzultzaileak etsi egiten du.

### **Hitz-ordena**

Nahiz eta itzultzaile askok sorburu-hizkuntzaren hitz-ordena eta horren esangurak alde batera uzten dituzten, komeni-komenigarria litzateke ordena horren zereginik gorahandikoenak begi aurrean izatea:

1.- Baiezpenak galdera eta aginduetatik bereiztea. Ekintza-sorta bat adierazten duten baiezpenek, ohiko hitz-ordenan, egilea-eragindako gauza-aditza hurrenkera agertzen dute (euskararen gainean ari garela). Baiezpen deskribatzaileek topikoa-predikatua-aditza. Galderetan eta aginduetan, ia hizkuntza gehienetan, gauzak bestelakoak dira. Euskaraz den bezanbatean, galderetan galdetzaile bat —beti edo ia beti aditzaren ondoan eta lehengo lekuan— edo galdera salatzen duen elementu laguntzailearen bat ager daiteke (intonazioa barne). Aginduetan, era jokatueta-rala gabeetara jotzeak gauzak zertxobait alda ditzake. Horrela, ekintza bera esaldi-hasieran bertan ager daiteke («Etorri hona!, Egizu astiro/astiro egizu!»), zeharreko aginduetan

ia beti ordena kanonikora jotzen delarik: «Hona etortzeko!». Gai honetan, hala ere, euskal itzultzaileak ia ezinbesteko tresna du Eusebio Osa zenaren tesia.

2.- Hitz-ordenak aginte politikoak edo Elizakoak ezarritako arauak bete ohi ditu, nahiz eta askotan ahozko usadioen aurka joan bete-betean. Ez da ahaztu behar berezko hitz-ordenak areago lotzen diola ahozko hizketa-ri idatziari baino.

3.- Informazio jakina eta berria bereizi ohi ditu, informazio jakina abia-abian esanda. Euskaraz galdegaia eta mintzagaiaren auzia legoke tartean.

4.- Enfasia adierazten du. Berezko hitz-ordenak enfasia adierazteko bideak izaten ditu. Funtzio-hitzak, «hala ere, beraz...» adibidez, normalean ez dira indartzen. Ohiko enfasia aldatzen denean, berezko ordena aldatu egiten da edo idazkera etzana erabili (balibideak baliabide). Ez da ahanzi behar hizkuntza bakoitzak enfasia adierazteko baliabide lexikoak edo gramatikalak izaten dituelakoa, hurrenkeraren aldaketa gora-behera, normalean, gainera, beste hizkuntzetan baliokideak izaten dituztelarik baliabideok.

### **Bereak eta bi esatea hiztegiaren kontura**

Hiztegiaren kontra biraoka aritzeak itzultzailearen denborapasarik kuttunena behar luke. Gauzak aldatzen hasita dauden arren, aspaldi ez dela, klixe edo esamolde berezi-tako osagaien bat hiztegian begiratu nahi zenean (denean?), «adarra jo» kasu, «adar» sarreradun alera jota, eta horren adiera guztiak aztertuta «*adarra jo vide jo*» oharrarekin topo egin ohi zen/da. «Jo» sarrerari helduz gero, horren atal guztiak miatzeari ekin behar nahi dena aurkitzeko. Eta hori oso bitxia

ez den esamolde batekin. Baina, demagun gaztelerara honako hau eman behar dela: «*adin gordineko emakumea zen*». Nora jo, «adin»era ala «gordin»era? Eta batera eta bestera jota, ala ere, agertuko ez balitz?

Bigarren buruhaustea hitzen erabilkera-maiztasuna hiztegi bidez jakitea litzateke... Pipiak jotako esamoldeetarako, ganbara ederrak hiztegiok!

### **Metafora sexistak**

Autoritatiboak ez diren testuetan; alegia, ofizialak ez diren horietan, edo egilearen estatusak nolabaiteko agintea adierazten ez duenetan; «*Los profesionales del sector inmobiliario tienen la sensibilidad de una damisela*» edo «*Les "pros" de l'immobilier ont des sensibilités de jowencelles*» bezalako esaldiak aurkitzean itzultzaileak, hori alboratu eta mezua inor ez iraintzeko moduan ematen saiatu behar luke, ezelako ezpairik gabe, «*Etxegeleak sentiberegiak dira*» edo antzeko zerbaite esanda. Testua autoritatiboa balitz, alegia, aginteduna, egokieren arabera jokatu behar. *Sic* edo (!) bezalako baliabideren bat erantsi edo metafora ezabatu eta idazleari deitzea izan litezke jokabideetariko bi.

Segur aski, irakurle burutsuak ez dira bat etorriko. Egia da, bestalde, hizkera sexya eta sexistaren arteko muga maiz ezabatuegi dagoena (erotismoaren eta pornografiaren artean beste), eta ez dagoela zertan sexu-osagaiak lengoaiatik kentzerik.

Normalean, itzultzailea testuaren esangura zehatz eta mehatz ematen saiatuko da, honek egia moral edo egitezkoa hausten ez duen bitartean. Egia morala giza eskubideei buruzko eskubideetan oinarrituko litzateke, gehi animalia eta ekologiari buruz nazio

gehicnek adosturiko adierazpenetan. Testu batek egia morala edo egitezkoa irakurleari ziria sartzeraino hautsiz gero, itzultzaileak nola edo hala erantzun beharra izango du. Normalean, egileari edo bezeroari horren berri eman beharko zaio. Testua autoritatiboa izanez gero, izatezko eta ekintzazko hutsak testutik kanpo zuzenduko dira (oharretan, sarreran, parentesian...). Adibidez, nazio bateko hiriburuaren izena txarto eman ez gero. Testua bestelakoa balitz, testuan bertan zuzen daiteke. Egia morala hautsi deanean, jokabide bati baino gehiagori eutsi behar. Hizkera sexista, normalean, zuzendu egingo litzateke, besterik gabe. Autoritatiboa ez den testu arrazista, homofiliaren aurkakoa, hizkuntza minoritario edo minorizatuen aurkakoa edo horrelako motaren batekoa, ez litzateke itzuli behar, edukin horiek aipamen gisa agertu ezean. Testua autoritatiboa izanez gero, egile ondo ezagun batena, oharretan edo sarreran nabarmen lezake itzultzaileak, irakurlea bera, laguntzarik gabe, konaturatuko dela jakin ezik.

Aurreko pasarteak ez da, inondik inora, gustukoa ez dena zentsuratzearen aldeko jarrerara subjektibo bat, ez baitago ezer subjektiborik itzultzaileak bai profesional, bai gizaki gisa bere egin beharreko giza eskubideetan. Baina ez da guztiz zehatza beste uste erdi ustela bat, alegia, irudi edo esamolde bat aldatzeko arrazoi baliagarri bakarria esaera horrek horrelako kultur zama handia izateagatik hitzez hitzeko itzulpenean zentzurik ez edo zentzu okerra izango duelakoa. Irudi batzuk hilik daude eta ez dira arriskutsuak, inoizko batean, klixe baliagaitzak izatearren, baztertu egingo direlarik. Beste batzuk («gizonki jokatu!») baztertu beharrekoak dira, eta

itzultzaileek lagundu beharra dute. Euskal bertsoetako irudi batzuen kontura lan ederra dago eginkizun!

Ez da atzendu behar, bestalde, «egia linguistikoa», alegia, ondo idaztearen printzipioak, baina hauek erabiltzekoak dira itzultzaileak aginteduna —autoritatiboa— ez deanean, bestela, egilearen idaztinkerari eutsi behar, dena dela.

### **Testu juridiko-administratiboeconomicoak itzultzen**

a) Hasiera astuneko esaldiak. Frantsesezko zein gaztelarazko estilo akademikoan maiz agertzen dira izen-sorta handidun esaldi-hasierak, aurretik edo atzetik beste sorta batzuek edo esaldiek aldatuak:


*«Institué par un décret du 9 janvier 1967, ce système de réserves obligatoires, déjà utilisé dans de nombreux pays étrangers, visait à...»*

*«Recurso administrativo interpuesto por ... contra acuerdo de 16 de noviembre de 1989, desestimatorio de la reposición instada del acuerdo de dicho órgano de 9 de mayo de 1989, por el que se resolvió (...), al objeto de formular oposición como parte codemandada.»*

Irakoz gisa, itzultzaileak horrelako hasieradun esaldiak berriro antolatzeak ahalbidea kontuan izan behar luke.

b) Esaldi luzeak. Autoritatiboak ez diren testuetan, itzultzaileak beti izan behar du begi aurrean esaldia bestela antolatzeak aukera.

c) Giltza-hitzak. Xedeko testuan giltza-hitzak errepikatzeak testua hobeto irakurtzen eta ulertzen lagun dezake.



«A l'origine, le montant de ces dépôts non-remunérés était calculé en appliquant au volume des seules exigibilités de chaque banque un pourcentage fixé par la Banque de France à l'intérieur de limites définies par le Conseil National du Crédit»

«Hasiera batean, gordailu ordaingaitz horien zenbatekoa kalkulatzeko, banku bakoitzaren zamaren bolumenari portzentaia bat ezartzen zitzaion, Banque de France-k portzentaia hori zehazten zuelarik, Conseil National du Crédit erakundeak definituriko mugen barnean».

«Portzentaia» hitza bigarren aldian giltza gisa erabili da, erlatibo bat desmuntatuta. Bestalde, jatorrizko izenak zeuden-zeudenean utzi dira, bigarrena itzultzeak txartolertuak eragin ditzakelako, bertako erakunderen batekin nahastean (Euskal Herrian horrelakorik ez den arren, Espainian edo Ingalterran bai).

Giltza-hitzei dagokienez, edozertariko hitz edo klixe horietako batek bete dezake zeregina:

«Le chômage engendré par la substitution du capital au travail accélérée par la hausse des coûts salariaux»

«Lanak kapitala ordezkatzekoak sorturiko langabezia, lanaren kostuaren igoerak arindutako prozesua».

d) Atzizki gisa -ble daramaten hitzak. Normalean horrelako hitzak itzultzeko arazorik ez da egoten, baina XHn berbak halako arruntak ez izatea gerta daiteke. Hala gertatuz gero, beste tresnaren bat erabil liteke. «L'alibi d'une zone de libre-échange soluble dans le marché mondial». «Soluble» hori «disolbagarri»ren bitartez ematea desegokia ez ezik, adiskide aizun batera jotzea ere litzateke. Agian, parafrafiren bat asmatu behar, «munduaren egoerarekin bateragarria, munduaren egoerarekin batera daitekeena, munduaren egoerarekin bat egindako..»

e) Laburpenaren indarra. Nork esango luke testu tekniko batean «inaugural» berbak «lectura inaugural»/«inaugural lecture» adierazi nahi duela? Jakina denez, itzultzaileak osagai isilen bat dutenekin arreta handiz jokatu beharko du, galdutakoaren berri okerbiderik gabe eman ahal izateko.

f) Esanguraren oinarrizko osagarria testuinguruaren arabera hautatzea. «La date-fétiche» bezalako esakune bategaz topo egin da, «fétiche» berbaz hiztegiek emandako adieretatik —mailegura jo ezean, jakina— gaiari ondoen lotzen zaiona aukeratu beharko da: «erlijiosoa, sinbolikoa, magikoa, ongilea, karismatikoa, obsesiozkoa». Testu tekniko batean, agian, karismatikoak ondo joko luke: «egun karismatikoa».

g) Modako hitzak. «Eremu, spazio, *el hecho de que...*» bezalako modako hitzak lau haizetara barreiatu direlako inork zalantzan jarriko ez du. Horrela «*eremulespazio sozial europarra*» esatean, zer informazio berri gaineratu da?, zer aldatu? Ez al gaude «*Europako Elkartearen alderdi soziala*» (egunkari batetik hartua) esaten, beste bagarik, bide batez, alderdi soziala esatean ere, zerbait ulergarria al diogu? Edo «*aire-eremu = espacio aéreo*» (IVAPen Europako Itunearen Hiztegia) esatean? Horrelako hamaikatxo ele nonahi. Maileguak eta kalkoak beti izaten dira aberasgarriak. Maileguaren (askotan metaforaren) azpitik zer dagoen begiratzeke hartzea da kakoa. Ezin atzenduzkoak, bestalde, ia «eufemismo» bilakatu diren horiek. Adibidez «*liberal/libérah*» berba erabiltzea «*merkatu libre*» esan nahi delarik.



### Aipamenen itzulpenari buruzko oharra

a) Edozein motatako testu bateko ezein aipamen, egilearen mailan itzuli behar da (itzulpen «semantikoa»). Itzultzaileak, komunikazio-ihardunbidean tartekaria izanik, ez du erantzukizunik irakurlearen aurrean ezein ondorio pragmatikoa dela bitarte. Edozein «zuzenketa» moral edo egitezko itzulpenetik atetik egin behar da. Aipamenaren egilea irakurlearentzat ezezaguna izatekotan, glosa bat gehi daiteke, testu barnean zein kanpoan. Testua autoritatibo izanez gero, edo glosa oso luzea, hobe testuz kanpora ematea. Normalean itzulitako aipamenaren estiloak ez du zertan testu osoarena berarena izanik.

b) Aipamena xede-hizkuntzatik itzulitakoa bada, jatorrizko testua eman beharko da, itzulpenaren itzulpena egiteke. Jatorrizko

hizkuntzako aipamen bat xedeko hizkuntzan itzulita eta argitaraturik egonez gero, lehendik egindakoa eman beharko da, ez bada itzulpen «freskuago» bat egiteko aukera dagoela, eta hori, guztiarekin ere, orripeko ohar batean jakinarazi behar litzateke. Egilea oraindik bizirik balego, hari baimena eskatzea komeni-komenigarria litzateke. Biblia aipamenduna bada, zein eta noizko bertsioa den esan.

c) Aipamena anonimoa bada edo itzultzaileak hizkera-maila ez dela garrantzitsua erabakiz gero, zehar-estiloan eman dezake, testua aginteduna izan ezik.

d) Aipamendun publizitatea, oharra eta propaganda, normalean testu anonimoak izaki, dela sorburukoaren mailan, dela xedekoaren maila eta kulturaren eman daitezke, irakurleari informazioa helarazi behar izatea edo hura iritziratzea dela auzia.

e) Aipamen bat xedeko hizkuntzatik hartua bada, itzulpenean bere hartan emango da. Hirugarren hizkuntza batetikakoa izanez gero, normalean dagoen-dagoenean jaso eta kakotxoan artean itzulita emango da.

f) Zehar-estiloan emandako aipamen bat zehar-estiloan itzuliko da. Nolanahi ere den, aipamenaren jatorria xede-hizkuntza bada eta honetan ondo ezagun edo garrantzitsua bada, jatorrizko bertsoan eman daiteke.

g) Aipamen baten sorburua anonimoa bada edo munta txikikoa, hura kulturgabe-tu eta itzulpen komunikatiboa egin daiteke.

h) Aipagaia atsotitzak badira, horien baliokideez eman beharko dira, halakorik iza-tekotan.

i) Aipamen bat modu ilunean edo ardu-rabakoan emanda baletor, normalean orpo-zorpo itzuliko litzateke, kakotxorik gabe, nahiz batzuetan letra etzanez ematen diren; kakotxoan artean datozen aipamen ironiko, figuratiboa edo apologetikoa, maiz, letra arruntez isurtzen diren bitartean.

j) Hainbat egile hain zaleturik dituzten hitz bakarreko edo esamolde sinpledun aipamenak («*tudies*» «*calamidad nacional*») normalean ez dira kakoen artean emango itzulpenean, berebiziko garrantzia ez badute, behintzat. Irakurleari zantzuak edo jatorrizkoaren usaina eskaini nahi izanez gero, itzulitakoen ondoren parentesi artean jatorrizko esamoldeak joan daitezke. Kontuan izan behar da, gainera, horrelako hitz eta esamoldeekin sano korapilatsua gertatzen dela jakitea noiz den aipamen anonimoa eta noiz esangura berezi batez erabiliriko berbak.

k) Baldin eta, maiz gertatu bezala, jatorrizko testuaren izenburua testuan bertan ere agertzen bada, testu hori itzultzean erraz hautemateko moduan emango da, eta, garrantzitsuagoa dena, izenburuko ele berberetz, sinonimorik eman gaberik. Zeharreko aipamenak egiten dituen izenburu bat testuaren bidez baino ezin da argitu. Aldizkari batzuek bi izenburu erabili ohi dituzte: deigarri bat azalean eta arruntago bat aurkibidean. Itzultzaileak, ahal duela, itzuri egin behar lioke horrelako jokabideari.

l) Jatorrizko egileak aipamen gutxi ala asko ezagunen bat erabiltzen badu, demagun poema bateko ahapaldiren bat, kakorik gabe edo aipamena dela nabarmentzeke ere eta, gainera, irakurleak horren berri izango ez duela susmatuz gero, modu komunikatibo batez eman liteke aipu hori.

### **Metaforak egokitzea itzulpen-teknika gisa**

Prozedura hori erabilienetako bat da. Normalean, hitzez hitzekoak funtzionatu ez edo baliokide estandarrik ez dagoela, halere, irudiak aldatzea edo zentzua murriztea baino, itzultzaileak prozedura horri eustea nahiago duenean erabiltzen da.

Metafora bat egokitzen denean, irudi nagusiak iraun ohi du, aldaketa txikiren bat gora-behera, nahiz eta esamoldea edo testuingurua aldatzen den. Horrela «*les cousins de l'est retrouvés*» bezalako bat, «*ekialdeko lehengusu-lehengusinak atzera ere gure artean*» esakunez edo antzeko zeozer erabiliaz eman ditezke. Itzulpenetan «...*la dirudil/zirudien*», «*-ren moduko*», «...*-ren antza zuen*», «*delakoa*», «...*-ek diotenez*» eta antzeko erdi-similak agertzen direnean; alegia, honen modukoren bat, «*ingelesez diotenez, denbora di-*

*rua da*»; metaforaren bat moldatu dela esan daiteke. Kultur amildegirik ez badago, metafora beti molda daiteke, «*Dieses Zimmer ist der reinste Eiskeller*» «*gela hau izozkailu baten modukoa da*» eta antzeko baliabideen ildotik. Hala ere, metaforarik kolokialenetakorako agian halako baliagarria ere ez da izango, adibidez «*that cuts no ice with me*» (iruzkin gisa, hauek lirareteke esanahietariko batzuk, «*horrek ez nau zirrarazten*», «*ez dator bat nirekin*», «*ez doakit*», «*ez nau asebetetzen*»...).

### Izenburuak

Izenburuaren esangura, maiz, testuinguruan errepikatzen direnean argitzen dira. Baina, nondik jo «*L'Europe, un vol-au-vent à la sauce financière*» izenburua duen finantzazko testuak jakieci bestelako aipamenik egiten ez badie?

### Itzulpen-hastapen batzuk berresten

Erreferentzi-eremu orokor baten barnean, testu guztiak honela sailka daitezke: a) adierazkorrak edo autoritatiboak, b) berri-emaileak, c) pertsuasiozkoak edo direktiboak. Lehenengo taldekoak, a) motakoak, anitzetan, egilearen mailan itzultzen dira, jatorrizkoaren kultura-mailari cutsita. Bigarrenengoak, b) motakoak, irakurlearen maila kontuan izanda itzultzen dira, eta bai jatorrizko bai helburuzko kultura-ondare amankomunetik edaten dute, eta hori ezin dela, kultura jakin batek ez markaturiko esakune unibertsaletatik. Azken multzoa, c) multzoa, irakurlearen mailan itzuli ohi da, begi aurrean xedeko kultura izaten dela. Gauzak horrela, a) motako itzulpen batean ingelesaz *Sejon* berbaz esango zaio Poloniako *Sejm*-ari, b) motako

testu batean Poloniako Parlamentua esango da eta c) motakoan Poloniako Legebiltzarra.

### Itzulpenaren okasioa

Itzulpenaren okasioak itzulpen-ekintza simple baten ingurumariak eta xedea definitzen ditu. Horrela, itzultzaileak bere buruarentzat itzul dezake, edo irakurle-klase berezirentzat, edo irakasteko, edo irakurle zehaztugabe batenentzat... Horrek guztiz baldintza dezake itzulpena. Adibidez, ekonomilariek, soziologoek, filosofoek, abokatuek «berbaldi» erabat elkarren desberdinak izan ditzakete (termino horren barnean balioak, erreferentzi puntuak, jarrerak eta erregistroak sartzekoak dira).

### Kontsulta-liburutegiak

Kontsulta-liburutegiak ezein liburutegi onen bihotza eta elektrizitate-gunea da, baita itzultzaileentzako salgai-meta. Datu-bankuek eta termino-bankuek horien osagarriak dira eremu espezialduetan, eta beren kabuz diharduten itzultzaileek horiek eskuratzeko manera izan behar dute. Egun, liburutegi askok eta askok informazioa konputadoreetara biltzen dihardu, erreferentzi sailen kaltean. Harritzeko modukoa, bestalde, hainbat liburutegi publikok, eta are unibertsitate-liburutegik ere, eguneraturiko hiztegiak faltan izatea.

### Itzultzailearen aldarreak

Itzultzaileak nekez irakurriko du berrero berak eginiko itzulpen bat, noiznahi egiten duela ere, aldaketaren batzuk edo bestetzuk egin barik. Horra hor aldarrea itzulpengintzaren faktore gisa.

### **Itzulpengintzaren argudio-etzabaidagairik zaharrena**

Berba horrek X esan gura du, baina hemen ezin duzu inondik inora X esangura hori erabili.

### **Hirugarren korrelazioa**

Autoritatiboa ez den testu batean, eduki-na estiloa bera baino garrantzitsuagoa izanez gero, testua zenbat eta txarrago idatzirik egon, orduan eta areago izango du berridatzi eta berregituratu beharra erregistro egokian, gizarte-erabilkera egokian, hizkuntz senaren legeen moldean.

### **Itzulpen finkatuak, estandarrik**

Hitz edo terminoren baten itzulpena nolabait finkaturik badago xedekoan —hiztegi-tan ere jasotzeraino, batzuetan— itzultzaileak era finkatu hori eman behar du, nahiz berak beste itzulpenen bat egokiagozat jaso. Aukeran, glosa moduan, beste aukera hori eskain dezake. Itzultzaileak era estandar-rra eman ezik, irakurlea okerbidera bultzatza-ke.

### **Baliokidetzaren funtzionala neologismoen aurrean**

Informaziozko testuetan baliokidetzaren funtzionala eta kulturala neologismoak sortzea baino bide egokiagoa izan daiteke, azken hau besterik ezean baino erabili behar ez delarik. Transferentziari kultura-hitzak emateko itzulpen-ihardunbiderik oinarritzakoena da (hitzez hitzeko hitz unibertsal eta ez-kulturalak emateko den gisan). Horrela, «*croissant*» eta «*hirugarren adina*», euskal kulturaren errotu samar dauden aldetik, euskararen altxorrekotzat jo behar dira berdin-berdin, hitzak

erreferenteak baino arinago inportatu badira ere. Kulturaz den bezanbatean, kontu handiz jokatu behar da beti!

### **Pertinentzia eta unibertsalak**

Wilson eta Sperber-en Pertinentziaren Teoria eta Grice-ren lankidetzaren printzipio-ak areago dira komunikazio eraginkorra lortzeko baliabideak teoria linguistikoko oso edo zatizko bat baino, baina kulturaren aldetik markagabeak izatea dute abantaila, ondorio gisa, itzulpen hurbil baina akastunxea beti egin daitekeelakoa dutelarik, baldin eta kultura-terminoak eta adierazpideak oinarri amankomuna den giza adimenaren ikuspegitik analizatzen badira. Idazkera onak eta txarrak horien hartan jarraitu behar lukete edozein hizkuntzatan hertsiki emanda ere. Hain da txarra jatorrizkoa edertzea nola maila ez ematea, behetik geratzea.

### **Hizkera teknikoa edo arrunta**

Zail samarra izan ohi da itzultzailearen-tzat termino teknikoa hizkera arruntan noiz dagoen nahikoa erroturik erabakitzea, hau da, hizkera horretakotzat sailkatu ahal izatea, batez ere eleak hizkera bietan korritzen badu. «*Partir avait la force d'un réflexe véritablement national*» esaldia, ematean, «*bertakoen benetako erreflexua*» gisa eman behar da ala «*bertakoen berezko joera*»? Ez dirudi «erreflexu» hizkera arruntan sartzerik dagoenik, gazte-leraz, adibidez, «reflejo» bietan erabiltzen da eta eremu teknikoa eta egunerokoa bat dartzat alde.

### **Amaiera pisutsua**

«Amaiera pisutsua, astuna» izeneko baliabidea erabilgarria da oso itzultzaileak esal-



di-akabera baten indarra edo komunikazio-dinamismoa azpimarratu nahi duenean. Askotarikoak dira hartarako bideak, euskaraz, adibidez, aditz soilaren partez, perifrasira jotzea: «*Ikara batean, gogotik oihukatu zuen*», «*Ikara batean, gogotik oihu egin zuen/egin zuen oihu(a)*»

### **Metafora baten bizitasunaren bilakaera**

Batzuetan gaitza da erabakitzea zenbateraino interpretatu behar den hitzez hitz metafora. Noiz eutsi metaforari eta noiz egokitu? Mataza oraindik areago korapilatzeke, batzuetan hizkuntza bietan metafora gisa ibili ohi diren hitzak, balio bereaz, gainera, bestelako testuinguruetan ager daitezke, horrelako baliorik izan gabe. «*Pearl*», «*perle*» eta «*perla*» hitzak hortzen zuritasuna adierazteko metaforak izan ohi dira ingelesez, gaztelaraz eta euskaraz. Baina «*sans une perle en poche*», «*without a pearl in his/her pocket*» ezin eman daiteke «*sakelean txakur txikirik ez duela*» edo antzeko zerbaitez, «*perla*» hitza ez baita hizkuntza horietako bakar batean ere diruaren metafora eta, ondorioz, «*sakelean perlarik ez duela*» edo eman behar, dena dela harako perla hori itzulgaian zein itzulpenean.

### **Antzezlanak itzultzearen gaineko oharra**

a) Normalean hiru antzezlan-mota nagusi bereizten dira: tragedia, komedia eta fartsa, nahiz eta mende honetakoa genero horiek elkarren nahas-mahasean agertzen diren. Tragedia serioa eta goibela izan ohi denez, ahalik eta itzulpenik orpoz-orpoena egiten zaio, jatorrizko kulturaren fiabardura guztiei eutsita. Komedia humoretsua izaten da, seriotasuna gora-behera, itzulpen hurbila egitea seriotasun horren menpean dagoela, hone-

tan ere, jatorrizko kultur osagaiak dauden daudenean utzirik. Fartsa arina eta dibertigarria, itzuli baino, moldatu edo egokitu egiten da, xede-hizkuntzara aldatzen delarik; dibertimendua osagairik behinena denez gero, horri eutsi beharra dago, hizkuntz formaren kaltean baina negozioren pentzuan.

b) Egun, aski jokabide arrunta da atzerriko antzezlan bat hartu eta hizkuntzalari aditu bati ematea, itzulpen hurbil-hurbila egin dezan, emaitzari gero antzerkigile eza-gunen batek itxura dramatikoak eman diezaion. Ez da jokabide txarra, aurreko pasartean esanikoak ahantzen ez badira eta, jakina, itzultzaile profesional aditurik topatu ezean. Nola edo hala, horrelako bi aditu behar izateak ondo baino hobeto definitzen du itzultzailearen lana, alegia, hizkuntz ordainak ondo eman behar izateaz gain, artelana gaineratzearena ere, besteak beste.

c) Antzezlanen moldapenak horien mezimenduengatik epaitu behar dira, jatorrizkoekin kritikoki erkatu gabe. Poemak prosaz ematean legez —kontrako ikuspegitik, baina— jatorrizkoetarako sarreratzat jo behar dira.

d) Itzultzailearen antzezlanarekiko erantzukizuna ez da heltzen taulaturiko bertsioraino, normalean azken hori ekoizlearen ardura izaten baita. Nolanahi ere den, batzuetan artifizial samarra ere bada irakurlearentzako bertsioa eta ikuslearentzako bertsioa bereiztea; usteak oinarritzeko, askok legez, uste erdi ustel korritu hori erabiliz gero, alegia, irakurlearentzako bertsioa literarioa dela eta ikuslearentzako dramatikoak.

e) Antzezlanetako pertsona eta leku-izen asmatuak beren hartan jaso baino, bersortu beharko dira itzulpenean, konnotazioei aha-

lik eta ondoen eustearren. Bestalde, hizkuntza xede dramatikotarako erabiltzen denean, aliterazioa ez litzateke galdu behar, ezta apropos txarto idatziriko hitzak ere.

f) Hizkuntzan badira osagai batzuk, pragmatikoak edo parahizkuntzakoak, pertsonaien ekintzak edo portaera islatzen dituztenak (haserraldiak, marmarrak, totelta-suna...). Erabilkera anitzak izan ditzakete (nahasmena, mozkorraldia, poza, elbarritasuna... adieraztea), baina segur aski hizkuntz unibertsalak izango dira, beraz, itzulpen-baliokidedunak.

### **Errepikapenaren erabilkera onargarria eta gehiegizkoa**

Errepikapenei dagokienez, hizkuntza bakoitzak bere mugak izaten ditu maiztasunaren aldetik. Frantses akademikoak nekez onartzen ditu, ezta pertsona-izenetan ere, normalean bi aldiz jarraian agertzen ez direlarik, sinonimo erreferentzial batek ordezkatu ohi dituzenez gero: *M. Giscard d'Estaing... Le député d'Adge...*

Ingelesak beste hizkuntza batzuek baino gehiago jotzen du errepikapenera, gauzetarako genero bakarra izatean. Nolanahi ere den, horrelako gora-beherak hizkuntzan hizkuntzako barne-estilistikei dagozkie, alegia, nork berca gorde eta horri eutsi behar dio, gainontzeko hizkuntzek zertan dabilzan axola ez diola. Ingelesean ez dago halako arazo handirik dena delako izen bat behin baino gehiagotan erabiltzeko.

Errepikapena maiz lagungarria dela pasarte luzeak argitzen ahazteke, gainera betegarriak eta zirkunlokikoak (egungo lengoai ekanduen izurritea) gutxiagotan erabiltzen laguntzen duela: «*desde esa perspectiva*», «*dans*

*cette perspective*», «*ikuspegi horretatik*»... Horrelakorik erabili barik, errepikapenera jo daiteke lasai asko.

Jakina, errepikapena bokabulario urriaren zantzua ere bada, maiz beharrezkoa ez izateaz gain.

### **Klase eta sexuaren hesiak haustea**

Itzultzailea kontuz ibili ezean, ezari-etzarian isuriko dira beste garai bateko esamoldeak, egun zertan erabilirik ez dauden horietakoak, honez gero denok onartzen ez dituzten kultur ekandu batzuen aztarnak diren aldetik. Adibidez, «*honnête homme*» européen bezalako esamoldea «europear landuak» gisa eman daiteke, *gizonezko* eta *aberats* tasun semantikoak ezabaturik, egungo usaerek ildo horretatik jotzen dute eta.

### **Amorfismo bat**

Ahal izanez gero, berbak itzul itzazu; ezin baduzu, zentzua itzul ezazu.

### **Filologiaren erabilgarritasuna itzulpengintzan**

Ilusio hutsa da *état de langue* delako bat, halako hizkuntza eta denbora jakin batean, multzo estatiko eta homogoneoa denik pentsatzea. Edozein aldi jakinetan, dena dela, hitz eta esamolde zaharkituak, kluxeak, esapide ohikoak zein heldu berriak eta abarrak daude, baita, maila apalago batean, osagai gramatikal berezi eta berezkoak ere. Itzultzaileak adi egon behar du denborak hitzen esan-guretan duen eraginaz jabetzeko, batez ere belaunaldi bat edo beste lehenago idatzia bada edo, nahiz eta egun idatzita egon, aspaldiko ekanduen arabera egina bada. Paul

Valéry-k grekera eta latinaren esangurak berriro indartu nahi izan zituen hitz frantsesetan. Normalcan, zenbat eta hitz bat gehiagotan erabili, orduan eta esangura gehiago bere barnera bildu eta orduan eta ahulagoa indarra; dena delako hitz edo esamolde hori jatorrizko hizkuntzan klixeraz izatera hurbildu ahala, agintedunak ez diren testuen itzultzaileak xede-hizkuntzan hitz edo esamolde biziagoren bat erabiltzea erabaki dezake.

Filosofiaz eta etimologiaz zerbait jakitea lagungarriagoa da literatura itzultzeko komunikabideetako testuak itzultzeko baino, erabilgarria izanik testu zientifikoetako greko-latinismoak emateko, ezinbestekoa ez bada ere. Historiak hizkuntza kutsatzen du eta harrokeria galanta litzateke itzultzaileak bere burua prozedura horretatik isolatzea. Hiztegi elebarrak etimologiaren berri ere eman behar dute, bestela laguntza ederra ukatzen diote erabiltzaileari.

### **Metaforaren tranpa**

Nahiz eta normalean esaldietan metalengoaia hizkuntz zeinu bereziren batek edo adierazpide erreferentzial batek iragarri joan, metafora inolako ohar berezirik gabe ere ager daiteke, eta itzultzailearentzako zantzu bakarra metaforikoa ez den interpretazioak zentzurik ez izatea litzateke. Horrelakoetan, jokabideetariko bat metafora simulakatu eta azken hau itzultzea izan daiteke.

### **Interpretaritzza eta itzulpena: zenbait desberdintasun**

Orokorrean itzulpengintzak eta interpretaritzak xede bera dutela gogoan izanda, alegia, testu baten esangura zehazki eta ekono-

mikoki ematea bigarren hizkuntza batean, interpretaritzak ondoko bereizgarriok ditu:

a) Ahotsaren tonua, ironia, sarkasmoa, sentipen bortitzak e.a. adierazteko ahala.

b) Paralengoaia, geldiuneak, marrakak, irriak eta negarrak barne hartzea.

c) Keinuak eta gorputz-lengoaia partaide izatea.

d) Interpretaritzak normalean berbaldia imitatzen du eta hizkera adierazkorra, lagunartekoa nabarmentzen du.

e) Esan osteko interpretaritzak laburra izatera jotzen du, eta jatorrizko berbaldia oso arina bada, aldi berekoak ere zenbait laburpen egiten ditu. Interpretariak, maiz, hizlari «laburtzaileak» izan behar izaten du eta, zertan esanik ez, natural eta doia.

f) Interpretazioak berehala ulertzeko modukoa izan behar du, argia eta anbiguotasunik gabea.

g) Aipamenak eta kultur terminoak termino neutroz adierazi behar dira edo xede-hizkuntzako terminoz.

h) Interpretaritzza normalean esaldiz esaldikoa izan ohi da.

i) Aurrea hartzeko eta itzul-inguruka aritzeko teknikak garatu beharra dago hizkuntzetariko bat SVO motakoa ez bada.

j) Berbaldia garatu ahala, jatorrizko testua desagertuz doa eta inoiz ezingo da berreskuratu. Horrexek bereizten ditu bereziki interpretaritzza eta itzulpengintza.

k) Metaforen kasuan, burura irudirik etorri ezean, interpretariak zentzua eman behar du edo, gehienez ere, moldapenen bat.

l) Esaldiak josteko, areago jotzea koordinaziora esaldi konplexuetara baino. Esaldi konplexuak normalean ez dira erabiltzen

berbaldian, honek gehienetan puntuazioari itzuri egiten dio eta.

m) Interpretariak, itzultzaileak baino, areago dira denbora-aurreztaileak. Zenbat eta hizkera sinpleagoa, orduan eta hobeto, ezin baitute berriro aztertu, ezta entzuleek ere atzera pentsatu.

n) Tentuz baina, interpretariak hizkera faktikoa gehiago erabili behar dute, batez ere entzuleei ekina erosoago egitegatik, bereziki berbaldiaren edo arroposten baten abian.

o) Interpretatzea bitartekaritza egitea da. Interpretariak elkarrizketa arrakastatsua izan dadin lan egin beharko du batzuetan, jatorrizkoan gordinegiak diren esamoldeak edo hitzak modu bigunagoan emanda, batez ere, nazioarteko bileretan, nazioaren bat mintzeko arriskua dagoela.

p) Egokitzat joz gero, interpretariak grekolinismoei, mailegucui, internazionalismoei eutsiko die, ezpairik gabe, hizkera politikoa eta publikoa batzen laguntzen dute eta.

### **Sintaxia versus lexikoa**

Sintaxiaren balio semantikoa orokorra da, eta enfasia, aldartea, hurrenkera, baiezipena e.a. adierazten ditu. Lexikoaren balio semantikoa berezituagoa da. Itzulpenean sintaxia lexikoa baino malguago eta irudimentsuagoa da, eta lehenetsuna du sinonimiarekiko.

### **Erroman, erromatarren antzera joka ezazu edo Tertium Comparationis**

Aspaldi honetan lan ugari egiten ari da kultur desberdintasunen gainean, kultur ikuspegiak erabat baldintzatzen baitutuzte hizkuntz estiloak (adibidez, gogoratu beste-

rik ez dago «Golkoko Gerran» gertaturikoa, mendealdekoen eta arabiarren estiloen arteko tarte ia menderagaitzak). «Erroman, erromatarren antzera joka ezazu» esamoldea litzateke oinarria, baliagarria delarik sarrera gisa, hastapenetan. Egun, hainbat tokitan *tertium comparationis* baten bila dihardute, ez konpromezu edo erdibide gisa, unibertsal modura baizik, eskubide eta eginbehar unibertsalengan oinarrituriko bide kultur kolore jakinik gabeko bat.

*Tertium comparationis* edo *tertium quid* delakoa, itzulgaia eta itzulpenaren balizko alderatze-gunea egia ekintzazko, moral, linguistikoa eta logikoa da. Horiek unibertsalak dira, egia ez-kulturalak. *Tertium quid* delakoa Chomskyren sakoneko egitura izan daiteke, edo Nidaren *kernel* (erdigune) direlakoak edo erabilkera sozial arrunta, edo logika hizkuntz bilakaturik edo adierazpen dotorea, doia. Agian kontzeptu malguak da. Baina egia linguistikoa da itzultzaile batek txarto idatzitako testu ez-autoritatibotik beti ere salbatu behar lukeena. Bere burua errespetatzen duen itzultzaile batek ez luke testu bat itzuli beharko testu eskasa, mengela, kalitate gutxikoa izango dena dakiela. Itzulgaia berridatzi edo zuzendu ondoren, egileari edo nagusiari deitu behar lioke, egindako aldaketa estilistikoen berri emateko, baita kontu handiz iritziratzeko ere. Normalean, horrelakoetan, esker ona erakutsi behar luke delako egile edo nagusiak.

### **Itzulpenaren geruzak**

Itzulpenaren geruzarik sakonenean itzultzaileak ez du hautatzerik: esaldi arruntetan, «*Neska etorri zen*», «*The sea is deep here*», «*Le maître de la maison est sorti*»... banan banako itzulpena egiten daitekeenetan, denok onartu-

riko itzulpena eman besterik ez dago. Baina hautabideren bat dagoen bezain laster, itzulpena hurbiltze hutsa bilakatzen da. Itzulpena interpretazio bihurtzen da. Geruzarik kanpokoenean itzultzaileak hainbat ezaugarri izan behako du kontuan: metalengoaia, soinuak, egitura metrikoa, egitura formala... Hor itzulpena hurbiltze hutsa da, aukeramaukera zabala dagoelako. Nolanahi ere den, itzulpen osoan, faktore zientifikoa —zehaztasuna eta ekonomia— geruza horietako guztietara hedatzen da.

### ***Itzulpena eta idazketa laburtzailea***

Laburpenak idazten ikastea ezinbesteko ikasgaia da itzultzailearen trebakuntzan. Lanbidean, itzultzaileak laburpenak idatzi beharko ditu notizi agentzietan lan egiten badu edo aldizkari zientifiko, profesional edo akademikoetarako laburpenak egin behar izanez gero, filmeetarako edo telebistarako azpтитuluak egiteko ardua izatekotan, eta, zer esanik ez, interpretaritzan aritu edo erakunde publiko zein pribatuetako itzulpen-sailean ihardunez gero, kazetaritzaren alderdi guztiak atzendu bagarik.

Itzultzailearen trebakuntzan duen balio ukaezin hori testu baten muina aurkitu beharriaz datza, jasotzaileak lortu nahi duen xedea beti ere oso begi aurrean izanik. Gaiari dagokionez, bi hizkuntzen arteko kultur tartea oso handia bada, iragazketa arretatsua egin beharko da, agian aldaketak ere

bai, eta jakina, jatorrizkoak egia nabarmenki hautsiz gero, apika, nola edo hala zuzendu.

Laburpen-idazleak, itzultzailearen antzera, testuan zehar korritzen duen pentsamendu-haria aurkitu behar du, lengoaia eta horrek denotatzen duen errealitatea ulertzeko. Normalean tropo guztiak, metaforak bereziki, pasarte oso bat edo gehiago bete ezean, beren zentzura laburtu beharko dira. Giltzaitz, -esamolde eta -esaldiak estuki itzuli behar dira, itzultzaileak aipu agintedunekin bezala. Sinonimiari eta parafrasiari ez zaie amorerik eman behar, ezta errepikapenaren beldur izan behar ere. Argudiozko testu batean kontrasteak eta loturak nabarmendu behar dira, maiz lokailuak berretu ere, eta gertaerak adibideetatik bereiztu. Alderdi positiboa azpimarratu eta negatiboa, ahalik eta gehien, apaldu. Adituren baten aipuak ez badira, estatistikak eta bestelako kopuruak borobildurik eskainiko dira, irakurgarriagoak egitearren. Azpiatalek letrak edo zenbakiak izango dituzte sarreratzat. Edozein dela jatorrizko erregistroa, xedekoan estilo neutroz emango dira, hizkera adierazkorra gaitzetsi behar delarik. Luzerari dagokionez, heren edo laurden batera laburtzarena konbentzio hutsa da.

Idazketa laburtzailea informazioa orokortzen, ekonomia linguistikoa lantzen eta hitz, gertaera edo kontzeptuen garrantzia nabarmentzen etengabe ihardurtea da. Idazketa laburtzailean, itzulpen-mota guztietan legez, testu egituratu batera laburtu, argitu eta errazteko ahalmena funtsezkoa da.